

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
27/2010	R10/2013	2013/06/28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Ikuskaritza eskumena

R 10/2013 ebazpena
27/2010 espedientea

Gasteizen, 2013ko ekainaren 28an

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordeak, Carlos Palao Taboada jauna batzordeburu duela eta Isaac Merino Jara eta Francisco Javier Muguruza Arrese jaunak batzordekide dituela, honako erabakia hartu du:

ERABAKIA

Bizkaiko Foru Aldundiak Estatuko Zerga Administrazioaren aurrean 1 ERAKUNDEA (IFZ: (LETRA)ZZZZZZZZ) 2008ko ekitaldiko Balio Erantsiaren gaineko Zergaren harira ikuskatzeko planteatu duen eta Arbitraje Batzorde honen aurrean 27/2010 espediente-zenbakiarekin izapidetzen den gatazkari buruzkoa.

I. AURREKARIAK

1. Gatazka hau Bizkaiko Foru Aldundiak planteatu zuen, bertako Ogasuneko zuzendari nagusiak 2010eko abuztuaren 31n bidali zuen eta Arbitraje Batzorde honen erregistroan 2010eko irailaren 1ean sartu zen idazki baten bidez. Idazki honekin batera, beste dokumentu batzuen artean, agintaritza horrek gatazka hori ezartzeko hartu zuen erabakia jaso da, 2010eko abuztuaren 30ekoa, baita Bizkaiko Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantza Saileko Koordinazio eta Laguntza Teknikoko zuzendariordeak erabakia baino lehen egin zuen proposamena ere, egun berekoa, eta Bizkaiko Foru Ogasunaren Ikuskaritzako Koordinazio zerbitzuburuaren 2010eko abuztuaren 19ko txostena ere bai.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
27/2010	R10/2013	2013/06/28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Ikuskaritza eskumena

Azken dokumentu honetan, gatazkaren aurrekariak azaldu dira, baita Bizkaiko Foru Aldundiaren iritzia defendatzeko oinarri gisa hartu diren argudioak ere.

2. Arbitraje Batzordeak 2012ko urriaren 29an gatazka tramitera onartu ondoren, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak (ZAEA) alegazioak aurkeztu zituen bere zuzendari nagusiak 2012ko abenduaren 19an aurkeztu zuen idazki baten bitartez, idazki horrek posta zerbitzuaren abenduaren 20ko zigilua darama, eta egun horretan erregistratu zen idazkiaren sarrera Batzordean.

3. Aipatutako idazki eta eranskin horiek ikusita, gatazka hau aurkeztu baino lehen ekintza hauek gauzatu ziren:

- 2010eko ekainaren 21ean ZAEAk 1 ERAKUNDEari (IFZ: (LETRA)ZZZZZZZZ) -aurrerantzean 1 ERAKUNDEA- ikuskapen-jarduerak hedatu egin zirela jakinarazi zion, 2008ko ekitaldiko BEZaren harira lurralde desberdinetan gauzatu ziren eragiketen bolumen-ehunekoak egiaztatzeko.

- 2010eko uztailaren 5ean, Bizkaiko Foru Aldundiak ZAEAari inibizio-errekerimendua aurkeztu zion aipatutako jarduerari dagokienez.

- 2010eko abuztuaren 3an ZAEAk errekerimendu hori baztertu egin zuen, ekitaldi horretan 1 ERAKUNDEaren BEZaren ikuskapena egiteko eskumena zuela adieraziz.

4. Espedientearen adierazpena egiteko izapidearen ondoren, Bizkaiko Foru Aldundiak eta 1 ERAKUNDEAk alegazioak aurkeztu zituzten, hurrenez hurren 2013ko otsailaren 26an eta 2013ko martxoaren 14an bidali zituzten idazkiekin.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
27/2010	R10/2013	2013/06/28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Ikuskaritza eskumena

1. Gatazka honen helburua da 2008ko ekitaldiko BEZaren ikuskapena egiteko eskumena aurka dauden Administrazio bien arteko zeini dagokion argitzea. Eskumen hori arautzen duten Ekonomi Ituneko arauak honakoak dira, kasu honi dagokion eta urriaren 25eko 28/2007 Legeak ezartzen duen idazketari dagokionez:

27. artikulua. Zergaren ordainarazpena.

Bat. Balio Erantsiaren gaineko Zerga ordainarazteko, honako arau hauek bete behar dira:

(...)

Bigarrena. Lurralde erkidean eta Euskadiko lurraldean jarduten duten subjektu pasiboek zergak bi administrazioetan ordaindu behar dituzte, lurralde bakoitzean egindako eragiketa-kopuruaren heinean. Proporzio hori zehazteko, hurrengo artikuluan jaso ditugun lotura-puntuak erabili beharko dira.

Hirugarrena. Aurreko urtean guztira 7 milioi eurotik beherako jarduerak gauzatu dituzten subjektu pasiboek, edozein kasutan ere eta beren jarduerak gauzaten dituzten tokia zeinahi izanda ere, Estatuaren Administrazioarekiko tributatuko dute beren helbide fiskala lurralde komunean badago, eta kasuan kasuko Foru Aldundiarekiko tributatuko dute beren helbide fiskala Euskal Autonomia Erkidegoan badago.

Bi. Eragiketa-kopuru osoa hauxe izango da: ondasunak ematerakoan eta zerbitzuak egiterakoan subjektu pasiboak lortu dituen kontraprestazioen

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
27/2010	R10/2013	2013/06/28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Ikuskaritza eskumena

zenbatekoa, Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta baliokidetasuneko gainordaina alde batera utzita, halakorik badago.

(...)

Hiru. Atal honetan ezarritakoa dela-eta, subjektu pasibo batek lurralde jakin batean jarduten duela esan daiteke, hain zuzen ere, lurralde horretan ondasunak eman edo zerbitzuak egiten baditu, 28. artikuluan ezarritako irizpideen arabera.

(...)

29. artikulua. *Zergaren kudeaketa eta Ikuskapena.*

(...)

Sei. Ikuskapena honako irizpide hauei jarraiki egingo da:

(...)

b) Zergak lurralde erkidean edo Euskadiko lurraldean egindako eragiketa-kopuruaren proportzioan ordaindu behar dituzten subjektuak ikuskatzeko, honako arau hauek bete beharko dira:

(...)

Bigarrena. Zerga-egoitza Euskadiko lurraldean daukaten subjektu pasiboak: zerga-egoitzari dagokion foru administrazioko organo eskudunek egingo dituzte egiaztapena eta ikerketa, Estatuko administrazioak laguntza eman badezake ere. Ondorioak eskumena duten

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
27/2010	R10/2013	2013/06/28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Ikuskaritza eskumena

administrazio guztietan bete beharko dira, administrazio horiei dagokien tributazio-proporzioa barne. Subjektu pasiboak aurreko ekitaldian eragiketen ehuneko 75 edo gehiago lurralde erkidean egina badu, zehaztutako lotura-puntuen arabera, eskumena Estatuko Administrazioarena izango da, Foru Aldundiek laguntza eman badezakete ere.

(...)

Transkribatutako arauen arabera, helbide fiskala Euskal Autonomia Erkidegoan duen subjektu bati dagokionez (1 ERAKUNDEAren kasuan bezala) 2008ko ekitaldiaren harira BEZaren ikuskapena egiteko eskumena Estatuko Administrazioarena izateko, baldintza hauek bete beharko ziratekeen:

- Aurreko ekitaldian bere eragiketen bolumena 7 milioi eurokoa baino gehiagokoa izatea, eta
- Ekitaldi horretan bere jardueren bolumenaren ehuneko 75 edo gehiago lurralde erkidean gauzatu izatea.

2007ko ekitaldian, 1 ERAKUNDEAren eragiketen bolumena 7 milioi eurokoa baino gehiagokoa izan zen, eta ondorioz, gatazka honetako gai gatazkatsua argitzeko geratzen den faktore bakarra da haren eragiketen bolumenaren zer ehuneko ulertzen den gauzatu zela lurralde erkidean ekitaldi hartan.

2. 1 ERAKUNDEAK 2007ko ekitaldiko BEZaren urteko laburpen-aitorpenean, ondorengo ehuneko hauek egotzi zizkien lurralde bakoitzean gauzatu zituen eragiketei:

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
27/2010	R10/2013	2013/06/28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Ikuskaritza eskumena

LURRALDEA	EHUNEKOA
Estatua	1 EHUNEKOA
Bizkaia	2 EHUNEKOA
Gipuzkoa	3 EHUNEKOA
Araba	4 EHUNEKOA
Nafarroa	5 EHUNEKOA

Aurreko ehunekoaren arabera, 1 ERAKUNDEAK lurralde komunean gauzatu zituen eragiketen bolumena guztira ehuneko 75ekoa izatera iritsiko litzateke Nafarroako Foru Erkidegoaren lurraldea ondorio hauetarako lurralde erkidearen parte dela ulertzen bada.

3. Bizkaiko Foru Ogasunaren Ikuskaritzak A01-LLZZZZ aktaren bitartez lehenagoko jarduera-bolumenen ehunekoak aldatu zituen (akta hori 2008ko abenduaren 18an adostasunez sinatu zen). Ehuneko berriak kalkulua egiteko metodo berri bat aplikatuz lortzen ziren, eta kalkulua egiteko metodo berriarekin, eragiketetatik kalifikazio desberdin bat lortzen zen, aitortutakoen oinarritzat hartu zenarekin bat ez zetorrena.

Aldaketa hau azaltzeko, nahitaezkoa da aztertutako urteetako espainiar sistema elektrikoa gutxieneko neurri batean behintzat ulertzea; hau da, sistema horretan diharduten enpresa-motak eta haien jarduerak ulertzea. Sistema hau oso labur deskribatu du Bizkaiko Foru Aldundiak bere idazkietan, eta, espero litekeen bezala, askoz xeheetasun gehiagorekin deskribatu da 2012ko otsailaren 27an 1 ERAKUNDEAK aurkeztu zuen alegazio-idazki luzean, non oso luze deskribatzen baita “elektrizitatearen sektoreko arauketa esparrua”. Ondorengo azalpen hau funtsean idazki horretan oinarritzen da.

a. Espainiar sistema elektrikoa. Aldi iragankorra

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
27/2010	R10/2013	2013/06/28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Ikuskaritza eskumena

Aintzat hartu den aldian elektrizitatearen sektorea arautzen duen oinarrizko xedapena Elektrizitatearen Sektoreari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legea (ESL) zen. ESLk ondorengo jarduera-mota hauek bereizten ditu: energia sortu edo ekoiztea, garraiatzea, hornitzea eta elektrizitatea merkaturatzea. Garraio-sareek energia ekoizten duten zentralak eta biztanle-guneak konektatzen dituzte, energia garraiatzen dute ekoizpen-zentraletik azken kontsumoguneraino eramateaz arduratzen diren hornidura-sareetaraino. Hornikuntza elektrizitatea garraio-saretik kontsumoko guneetaraino eramatean datza; bestela esanda, hornitzailearen sarera konektatuta dauden bezero guztien eskaerari erantzuteko erabiltzeko diren hornidura-sareak eraikitzea, mantentzea eta sare horiekin jardutea da. Hornidura-sarea garraio-sarea bukatzen den tokian bukatzen da. Biztanleria-guneetan kokatuta dauden transformazio azpiestazioek energia goi-tentsiotik (220 Kv) behe-tentsiora konbertitzen dute, eta ondoren, energia hornidura-sarearen bitartez azken kontsumitzaileenganaino garraiatzen da. ESLak elektrizitatearen merkaturatzailea elementu gisa sartu zuen, sektorean lehia ezartzeko, merkatu librean sistemako subjektu baimenduen artean aukeratzen denari energia erosteko eskubidea balioetsiz, eta aldi berean, eskuratutako energia garraiatzeko sare elektrikoetara sarbidea izateagatik eta sare horiek erabiltzeagatik sari bat ordainduz. Merkaturatzailearen jarduera bereizgarria energia handizkako merkatuan erostean datza eta askatasunez adostutako prezio batean saltzen da txikizkako merkatuan.

2000tik 2009ra arteko urteetako aldi iragankor batean, hornikuntzak era berean azken kontsumitzaile jakin batzuei elektrizitatea saltzea ere barne hartzen zuen (“tarifaren araberako salmenta”). 2003/54/EE Zuzentaraua ESLa aldatzen duen uztailaren 4ko 17/2007 Legeak sartu zuen espainiar Zuzenbidean. Lege honek ezarri zuen energia tarifaren arabera hornitzeko jarduerak elektrizitate banatzaileen jardueraren parte izateari utziko ziola, “azken errekurtsoko tarifak”

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
27/2010	R10/2013	2013/06/28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Ikuskaritza eskumena

direlakoak enpresa merkatuzaileek bakar-bakarrik eskaintzen zuten zerbitzu unibertsal gisa sortu ondoren.

Aldi iragankor horretan zehar, enpresa hornitzaileek bi motatako bezeroak zeuzkaten:

- Sarbide-tarifadun bezeroak edo bezero kualifikatuak. Bezero hauek energiaren hornikuntza enpresa merkatuzaile batekin kontratatzen dute, eta hark energia elektrizitatearen merkatuan erosten du. Bezero kualifikatuek, era berean, energia merkatuan eskura dezakete zuzenean. Eta enpresa hornitzaileek kasu hauetan garraio- eta hornikuntza-zerbitzua kontsumo-guneetaraino doazen sare propioen bitartez eskaintzen dute.

- Tarifa osoko bezeroak. Enpresa hornitzaileek energia bezero horiei hornikuntza-sareen bitartez garraiatzen diete (hau da, sarbide-tarifadun bezeroei eskaintzen dieten zerbitzu bera), eta, horrez gain, energia zuzenean saltzen diete. Tarifa osoko bezeroek enpresa hornitzaileei urtero Errege-dekretu bidez ezarritako tarifa batzuk ordaintzen zizkieten; tarifa horiek elektrizitatearen sektoreko kostu orokor kalkulatuaren arabera zehazten ziren; ezarritako zenbatekoak sektore horren gastu guztiei erantzuteko modukoa izan behar zuen, baita hornikuntzan parte hartzen duten subjektu guztiei ordaintzeko modukoa ere.

Hornitzaileek beren tarifa osoko bezeroengandik jasotzen zituzten diru-sarrerak, lehenik, elektrizitatea ekoizten zuenari energiaren merkatuko prezioen arabera ordaintzera bideratzen ziren. Diru-bilketaren gainerako zenbatekoa Energiaren Batzorde Nazionalari (EBN) entregatzen zitzaion, organo likidatzaile gisa sistemako eragile eta operadore guztiei ordain ziezaion, hau da, garraiolariari eta hornitzaileari, batik bat. Ez zen elektrizitatearen salmenta ordaintzeko sari espezifiko bat aurreikusten.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
27/2010	R10/2013	2013/06/28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Ikuskaritza eskumena

Sistemak enpresa hornitzaileei energia erostearen kostuak konpentsatzen zizkien enpresa horiek erosketa egitean benetan jasaten zuten kostura ahal beste hurbiltzea helburu zuen formulazio baten bitartez, eta ondorioz, 1 ERAKUNDEAK adierazten du energia saltzeak ez ziola inolako balio erantsirik ematen enpresari. Hau da, fakturazioa bezeroei tarifa osoan kobratuz lortzen zen zenbatekoa elektrizitatearen kostua ordaintzera bideratzen zen, baita horniduraren eta kudeaketa komertzialaren jardura ordaintzera eta sistemako gainerako eragileei ordaintzera ere; horrenbestez, enpresa hornitzaileek elektrizitatearen sektoreko diru-biltzaile gisa ziharduten.

1 ERANKUDEA 2000. urtean sortu zen, ESLak elektrizitatea garraiatu eta hornitzeko jardura erakunde batek gauza zezala adieraziz ezartzen duen exijentziari jarraiki, eta ekoizpenarekin eta merkaturatze-jarduerarekin bateraezintzat jo zen. 1 ERAKUNDEA elektrizitatea garraiatu eta hornitzeko jardueretan aritu da 2 ERAKUNDEA taldearen barruan 2000ko uztailaren 1etik. 3 ERAKUNDEAK energia merkaturatzeko edo modu askean saltzeko jardueran aritzen jarraitu zuen, eta 4 ERAKUNDEA, berriz, energia ekoizteaz arduratzen zen. Aldi iragankorrean zehar, 2009ko uztailaren 1era arte, 1 ERAKUNDEA lege-agindu bidez elektrizitatea tarifa osoko bezeroei hornitzeko jardueran ere aritu zen.

b. Jarduerak gauzatu diren tokia, lurralde bakoitzean gauzatu diren jardueren bolumenaren ehunekoa zehazte aldera

1 ERAKUNDEAK BEZaren aitortopenean 2007an aitortutakoaren arabera lurralde bakoitzean gauzatu zituen jardueren bolumenaren ehunekoak Ekonomi Itunaren 28. artikulua aplikatuz lortzen dira. Ekonomi Itunak, honetarako zerikusia duenari dagokionez, honakoa xedatzen du:

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
27/2010	R10/2013	2013/06/28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Ikuskaritza eskumena

28. artikulua. *Eragiketen lekua.*

Bat. Ekonomi itun honen ondorioetarako, honako arau hauek betetzen dituztenak hartuko dira, Zergari lotuta dauden eragiketen artetik, Euskadiko lurralde historikoetan egindakotzat:

A) Ondasun-emateak:

1. Ondasun higigarri gorpuztunak Euskadin eman direla esan daiteke, hain zuzen ere, lurralde horretatik uzten badira hartu behar dituenaren eskuetan. Aldiz, ondasun horiek garraiatu egin behar badira jaso behar dituenaren eskuetan uzteko, halakoetan, espedizioa edo garraioa hasten denean ondasunak non dauden, han egindakotzat hartuko da ematea. Arau horrek honako salbuespen hauek izango ditu:

a) Ondasun horiek eraldatuta baldin badaude eta ondasunak eman behar dituenak berak eraldatu baditu, azken eraldatze-prozesua Euskadin egin bada hartuko dira, ondasun horiek, Euskadiko lurraldean egindakotzat.

(...)

2. Energia elektrikoa ekoizten dutenen emateak, energia hori sortzen duten zentroak Euskadiko lurraldean baldin badaude.

(...)

B) Zerbitzuak egitea:

1. Zerbitzuak euskal lurraldean gauzatu direla ulertuko da lurralde horretan gauzatzen badira.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
27/2010	R10/2013	2013/06/28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Ikuskaritza eskumena

(...)

C) Aurreko letretan xedatutakoa kontuan hartu behar bada ere, honako eragiketa hauetan, Zerga ordainarazteko eskumena Estatuko Administrazioak edo foru aldundi eskudunak izango du, subjektu pasiboaren zerga-egoitza lurralde erkidean edo Euskadin dagoen kontuan hartuta:

(...)

2. Garraio-zerbitzuak, baita etxez aldatzeko garraiabideak eta atoi- nahiz garabi-zerbitzuak ere.

(...)

3. Garraiobideak alokatzea.

1 ERAKUNDEAK aurreko araudia honela aplikatu zuen 2007ko ekitaldiko BEZaren urteroko laburpen-aitorpena egiteko:

- Elektrizitatea merkatu liberalizatuan eskuratzen duten bezeroei (sarbide-tarifadun bezeroak) hornikuntza-sarera sarbidea emateko zerbitzua eskaintzeko jarduerak osoki kokatu ziren Bizkaiko Lurralde Historikoan, 1 ERAKUNDEAK bere helbide fiskala duen tokian, alegia, garraio-zerbitzuei aplikatzen zaien arau espezifikoen arabera [C) idatz-zatia, 2. Puntua].

- Elektrizitatearen horniduraren bitartez lortutako diru-sarrerak (tarifa osoa) azken eraldaketa-prozesua gauzatzen den lurraldearen arabera lokalizatu ziren [A), 1.a) idatz-zatia]. Elektrizitatea eraldatzeko azken prozesua

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
27/2010	R10/2013	2013/06/28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Ikuskaritza eskumena

hornidura-gunea dagoen tokian gauzatzen da, han bihurtzen baita energia bezeroak behar duen tentsiora.

- Kontadoreen alokairuaren ondoriozko diru-sarrerak lurralde bakoitzari egotzi zitzaizkion, ekipo horiek instalatuta dauden tokiaren arabera [B) idatz-zatia, 1. puntua].

- Erakundearen gainerako diru-sarrerak (matxurak konpontzeagatik edo instalazioak aldatzeagatik, hirugarren pertsonentzako mantentze-zerbitzuak, Red Eléctrica de Españarentzako lanak, hondakinen salmenta, etab.) lurralde desberdinetan lurralde bakoitzean daukan batez besteko langileriaren arabera kokatu ziren, zerbitzua eskaintzen den tokiaren arauaren aplikazioaren arabera.

c. Bizkaiko Foru Aldundiak aldarrikatzen dituen eragiketen bolumenaren ehunekoak zehazteko metodo berria

4. Hala ere, lehenago adierazi den bezala, Bizkaiko Foru Ogasunaren Ikuskaritzak, A01-LLZZZZ aktan, Ekonomi Itunaren 28. artikulua aplikatzeko aurreko irizpideak zuzendu zituen. Akta horretan aipatzen da 1 ERAKUNDEAK Bizkaiko Foru Ogasunari idazki bat aurkeztu ziola 2008ko uztailaren 23an, eta idazki horretan azaltzen zuen lurralde bakoitzaren eragiketen bolumena zehazteko aitortpenetan erabili zituen irizpideak ez zirela egokiak elektrizitatearen sektoreko jarduerak ordaintzeko irizpide eta metodoetarako eta hornikuntza-sarera sartzeko zerbitzuen ondoriozko diru-sarrerak beren garrantzi erlatiboaren azpitik konputatu ziren enpresaren eragiketa-multzoari dagokionez. Bizkaiko Foru Aldundiak kritika horiek onartu zituen, eta metodo berri bat aplikatu zuen aipatutako aktetan lurralde bakoitzeko jardueren bolumenaren ehunekoak kalkulatzeko.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
27/2010	R10/2013	2013/06/28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Ikuskaritza eskumena

Adierazitakoaren arabera, aurreko metodoa desegokia zen “ez zuelako aintzat hartu tarifa osoaren barruan -elektrizitate-horniduraren zerbitzu osoaren kontraprestazioa izanik (energia saltzea gehi hornidura-guneraino garraiatzeko/banatzeko zerbitzua)- kontsumoko guneraino sarean zehar igartzeko zerbitzua saritzen duen zati bat dagoela, eta jardueren bolumena kalkulatzeko, gorputz-ondasunak entregatetik eta garraio-zerbitzuak eskaintzearen arauari egoztetik bereizi beharko litzateke”. Ondorioz, 1 ERAKUNDEAK eta Bizkaiko Foru Aldundiak tarifa osoaren bidezko diru-sarrerak bere bi osagaien arabera banantzea proposatzen dute: energia saltzearen bidezko diru-sarrerak eta hornidura-zerbitzuen bidezko diru-sarrerak, lehenengoak energia eskuratzailerentzat eskuragarri jarri den tokiari edo kontsumoko guneari egotziz (normalean toki hori eta elektrizitatea Red Eléctrica de Españaren goi-tentsioko saretik irteten den tokia lurralde berean egongo dira, konpainiaren hornidura-sareetatik igarotzen hasteko), eta bigarrenak elektrizitatearen hornidura gauzatzen duen Erakundearen helbide fiskalari egotziz. 1 ERAKUNDEAREN gainerako jarduerak beren aurreko kokapena mantentzen dute.

1 ERAKUNDEAK eta Foru Aldundiak onartzen dute “irizpide hori praktikan jartzeko zailtasun bakarra dela bi eragiketa horien diru-sarrerak xeheki bereiztea, tarifa integralak ez baititu bereizten energia entregatzearen prezioa eta energia garraiatzeko sarea erabiltzearen prezioa”. Zailtasun hau gainditzeko, batez besteko sare unitarioa sartzeko tarifa (hornikuntza-zerbitzua bakarrik ordaintzeko dena) eta batez besteko tarifa oso unitarioa (1 ERAKUNDEAREN eta Bizkaiko Foru Aldundiaren ustez batera ordaintzen ditu energia hornitzearen zerbitzua eta salmentarena) alderatzean datzan metodo bat aldarrikatzen dute, eta horrela, zerbitzu hori ordaintzen duen azken horren zati proportzionala lortzen da. Tarifa unitarioak urteko diru-sarreraren eta bezeroei hornitutako energiaren (kWh) arteko zatiketa eginez lortzen dira.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
27/2010	R10/2013	2013/06/28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Ikuskaritza eskumena

2010eko abuztuaren 19an Bizkaiko Foru Ogasunaren Ikuskaritzak egin zuen txostenak (gatazka hau planteatzeko aurkeztu den idazkiaren eranskin gisa jaso da) 2007ko zenbatekoetan honela aplikatzen du aipatutako metodoa:

- (a) Sarbide-tarifaren arabera kWh: 1 ZENBATEKOA
- (b) Sarbide-tarifaren ondoriozko fakturazio garbia: 2 ZENBATEKOA euro
- (c) Euro/sarbide-tarifaren arabera kWh [(b)/(a)]: 3 ZENBATEKOA
- (d) Tarifa osoaren arabera kWh: 4 ZENBATEKOA
- (e) Tarifa osoko fakturazio garbia : 5 ZENBATEKOA
- (f) Euro/tarifa osoaren arabera kWh [(e)/(d)]: 6 ZENBATEKOA
- (g) % euro/sarbide-tarifaren/tarifa osoaren arabera kWh [(c)/(f) x 100]:
% 6 EHUNEKOA

Ehuneko hau 2007ko ekitaldiko tarifa osoaren fakturazio garbiari aplikatuz, fakturazio hori energia hornitu eta entregatzeko jardueren artean banantzen da. Ekonomi Itunaren 28. artikuluko irizpideen arabera horrela lortu diren zenbateko berrien lokalizazioak Bizkaiko Foru Aldundiak eta 1 ERAKUNDEAK lurralde desberdinetarako aldarrikatzen dituzten jardueren bolumenen ehuneko berri hauek zehazten ditu:

LURRALDEA	EHUNEKOA
Estatua	7 EHUNEKOA
Bizkaia	8 EHUNEKOA

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
27/2010	R10/2013	2013/06/28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Ikuskaritza eskumena

Gipuzkoa	9 EHUNEKOAK
Araba	10 EHUNEKOAK
Nafarroa	11 EHUNEKOAK

Lurralde bakoitzean gauzatu diren eragiketen bolumenaren ehunekoak zehazteko metodo berria eta lortu diren emaitzak onartzen badira, lurralde erkideari 2007ko ekitaldian dagokion ehunekoa, gatazka honen ondorioetarako garrantzitsua dena izanik, edozein kasutan ere ehuneko 75ekoa baino gutxiagokoa izango litzateke, lurralde erkidearen kontzeptua nola ulertzen den kontuan hartu gabe, hau da, ondorio hauetarako Nafarroako Foru Erkidegoa haren partetzat jotzen bada nahiz ez. Ondorioz, analisiaren ordena logikoari jarraiki, lehenbizi kalkulua egiteko metodo hori Zuzenbidearekin bat datorren aztertu behar da.

5. Gatazka honen aldeek metodo berria Ekonomi Itunarekin bat datorrela edo ez datorrela-eta desadostasunak dituzte, eta iritzi horiek izateko oinarri gisa dituzten argumentuak gai nagusi baten ingurukoak dira: hornidura-zerbitzua elektrizitatea bezeroei tarifa osoan saltzeko jardueratik independentea den ala ez.

a) Zerga Administrazioko Estatu Agentziak (ZAEA) 2012ko abenduaren 19ko alegazioen idazkian azpimarratzen du, laburbilduz, elektrizitatea saldu aurreko jarduera guztien helburua dela elektrizitatea behar bezala hornitzea eta aurrekoak jarduera horren osagarriak direla. Ekonomi Itunean energia hornitzera bideratutako jarduera bakoitzerako ezarritako konexio-guneak jarduera horiek subjektu desberdinek gauzatzen dituztenean aplikatzen dira.

b) Bizkaiko Foru Aldundiak, berriz, bere suposizioa funtsean energiaren hornikuntza- eta salmenta-jardueren bereizkuntzan oinarritzen du,

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
27/2010	R10/2013	2013/06/28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Ikuskaritza eskumena

elektrizitatearen sektorea arautzen duen araudian ezartzen denari jarraiki. 2013ko otsailaren 26an aurkeztu zuen alegazioen idazkian (Zuzenbideko Hirugarren Oinarria) adierazten duenez, “elektrizitatearen sektorearen gaineko araudiaren edukia bakarrik abiapuntu gisa hartuz, ezinbestean ondorioztatu behar da erakundeak, tarifa osoko bezeroei dagokienez, bi jarduera bereizitan diharduela, hau da, ondasunak entregatzen dituela, batetik, hots, elektrizitatea saltzen duela, eta zerbitzuak eskaintzen dituela, bestetik, elektrizitatea hornitzen duela, alegia”. Zerbitzuak eskaintzeko jarduera hori ez da energia entregatzeko jardueraren osagarria. Bizkaiko Foru Aldundiak adierazi duenez, elektrizitatearen hornikuntza-sarera sartzen diren pertsona eta erakunde guztiek ordaintzen dute hornikuntza-zerbitzua; eta tarifa osoko bezeroen kasuan, zerbitzu horregatik fakturatzeko da, baita energiaren kontsumorik ez badago ere. Horrez gain adierazten du bezero horien kasuan bezala erakundeari balio erantsia gehitzen dion jarduera hornikuntza-jarduera dela, eta dioenez, horrek, edozein kasutan ere, energiaren salmenta hornikuntzaren osagarria dela erakusten du.

c) 2013ko martxoaren 14an egin zuen alegazio-idazkian, 1 ERAKUNDEAK behin eta berriro errepikatzen du, elektrizitatearen sistemaren inguruan egiten duen deskripzio xehearen harira, hornikuntza-jarduerak izaera substantiboa duela eta energiaren salmentatik guztiz bereizita dagoela. “Arauketa-esparrua ikusita, ezinezkoa da energia tarifa osoan hornitzeko jarduera tarifa osoan ordaindutako jarduera honen esparruan konpainiari balio ekonomikoa ematen dion jarduera substantibotzat jotzea. 1 ERAKUNDEAK potentzia kontratatua bermatzeko zerbitzua eskaintzen du, edozein kasutan ere, benetako kontsumoa gauzatzen bada nahiz ez” (46. orr.). “Modu sendoan baztertu behar da banaketa-jarduera horniduraren osagarria dela... Jarduera bat osagarria dela adierazten da jarduera nagusia gauzatzeko lagungarria denean, erraztu egiten duenean edo gehigarria denean, hau da, ez denean modu isolatuan gauzatzen eta ez denean jarduera nagusiarekiko autonomia; kasu honetan, argi dago

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
27/2010	R10/2013	2013/06/28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Ikuskaritza eskumena

elektrizitatearen banaketa ez dela tarifaren arabera horniduraren osagarria, izatekotan, eta jarduera bat nagusia eta bestea osagarria dela adierazi nahi bada, alderantziz izango litzateke” (47. orr. eta hurreng.). Argumentua idazkiko hainbat puntutan errepikatzen da, eta antzera adierazten da 76. orrialdean. Horrez gain, 1 ERAKUNDEAK garraio-zerbitzurik ohikoenen arteko desberdintasunaren argudioa ere aipatzen du, garraiatutako ondasunaren salmentatik bereizteak ez duela zentzurik argituz: “Kasu orokorrean ez bezala, elektrizitatearen kasuan, kontsumitzaile potentzialek energia garraiatzeko zerbitzu jarraitu bat ordaintzea onartzen dute (legeak horretarako izendatzen duen eragileak gauzatzen du, hornitzaileak), baita epe laburrean energia kontsumitzeko asmorik ez badute ere, edo baita beren asmoa inoiz ez kontsumitzea bada ere (adibidez, kontratu erredundanteen kasuan edo segurtasunarekin lotuta), zerbitzu hori existitze hutsak unean-unean nahi duten energia eta eskatu duten potentziarekin eskuragarri izan ahalko dutela bermatzen die” (72. orr.).

1 ERAKUNDEAK, era berean, honakoa argudiatzen du: “Ekonomi Itunean ez da osagarri izaeraren inguruko araurik jasotzen, jardueren bolumenaren definizioari dagokionez. ... 27.Hiru artikulua 28. artikulura bidaltzen du, eta bertan ez da zehazten ondasun-entrega baten edo zerbitzu-eskaintza baten kokapena aldatu egin daitekeenik jarduera bat bestearen osagarria izatearen ondorioz. Legegilearen asmoa arau hori ezartzea izan balitz, horixe egingo zukeen (30/1992 Legearen 79.Bi artikuluan egin zuen bezalaxe). Horrenbestez, legegileak nahita hartutako erabaki bat da, hau da, nahita erabaki du jarduera desberdinen izaera ez aldatzea” (77. orr. eta hurreng.).

Ondoren, 1 ERAKUNDEAK Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiak jarduera nagusi batzuk diren, jarduera konplexu bakarra den ala jarduera nagusi bat eta haren osagarriak diren argitzeko erabilitako hainbat irizpide aipatzen ditu:

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
27/2010	R10/2013	2013/06/28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Ikuskaritza eskumena

a) Batez besteko kontsumitzailearen ikuspuntua. Saltzaileak jarduera nagusi bat baino gehiago ala jarduera bakarra gauzatzen duen zehazteko, jarduera gatazkatsuaren elementu bereizgarriak batez besteko kontsumitzailearen ikuspuntutik bilatu behar dira. Kasu honetan, 1 ERAKUNDEAREN ustean, “batez besteko kontsumitzaileak sare elektrikora edozein unetan sarbide izan ahal izatea exijitzen du, energia tentsio-maila egokian eskuragarri izan ahal izateko, nahi duen moduan eta egokia deritzon edozein unetan” (78. orr.).

b) Banandu ezin diren jarduerak. Jarduera bakarra izango da baldin eta gauzatutako ekintzak beren artean oso-oso estuki lotuta edo erlazionatuta badaude, hainbeste non objektiboki prestazio ekonomiko bakar eta bereiztezin bat osatzen badute, eta jarduera xehakaturik gero xehakapen artifizial bat izango balitz eta jarduera guztiak badira beharrezkoak prestazioa burutzeko. 1 ERAKUNDEAREN ustez, “elektrizitatea hornitzeko zerbitzua eta energia hori entregatzeko zerbitzua, benetako kontsumoa izanez gero, ezin dira bereizi, argi dago. Horren adierazgarri da, besteak beste, energia-kontsumorik ez badago enpresa hornitzaileak bezeroari nolana ere fakturatuko diola, baina hornikuntza-zerbitzua bakarrik” (80. orr.).

c) Jarduera osagarriak. Prestazio bakarra izango da elementu bat prestazio nagusia dela eta elementu bat edo bat baino gehiago jarduera osagarri bat edo gehiago direla ulertzen bada, eta azken horiek jarduera nagusiaren tratamendu fiskal bera izango dute. Elektrizitatearen kasuan, “kontsumitzaileak elektrizitatea egoki deritzon unean eta kopuruan eskuragarri izatea exijitzen du, enpresa hornitzailearekin kontratatzen duen potentzia mugaren barruan, energia hori garraio- eta hornidura-sareetan etengabe zirkulatzen ari delarik. Aukera hau, eta ez bakarrik une

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
27/2010	R10/2013	2013/06/28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Ikuskaritza eskumena

jakin batean baliatzea, kontsumitzailearentzat helburu bat da berez. Kontsumitzailea elektrizitatea hornitzeko zerbitzuagatik ordaintzeko prest dago, baita energia benetan kontsumitzen ez badu ere, eta horixe gertatzen da ... bigarren egoitzetan (edo udako egoitzetan), denbora luzean egoten baitira kontsumorik gabe, edo industria jakin batzuetan segurtasuneko sarbide alternatiboak kontratatzen dituzte" (82. orr. eta hurreng.).

d) Prezioaren xehakapenak. EEJaren arabera, ez da erabakigarria jarduera baten osagai desberdinetarako kontratu bidez prezio desberdinak ezartzea, edo alderantziz, prezio bakarra ezartzea jarduera baterako baino gehiagotarako; kasuan kasu, jarduera bakoitzerako prezioen arteko harremana jarduera edo jarduerak kalifikatzeko kontuan hartu behar den seinale objektibo bat da. Kasu honetan, "tarifadun bezeroen fakturretan potentzia terminoa eta energia terminoa bereizten dira, eta hori energiaren hornidurak nahiz energiaren kontsumoak berezko izaera dutela islatzen duen adierazgarri bat da. Kontsumitzaileak hornitzaileari zenbateko oso bat ordaintzen dio, bere fakturan bi kontzeptu edo elementu bereizten dira, potentzia eta kontsumitutako energia... Ondorioz, ... BEZaren ikuspuntutik, energia tarifa osoko bezeroei hornitu eta saltzeko jarduerak ez dute operatiba bakarra osatzen, eta bi jarduera horiek ez daude ezinbestean eta estuki erlazionatuta beren artean objektiboki banandu ezin den prestazio ekonomiko bakarra osatuz, eta ezin da ulertu hornikuntza-jarduera jarduera nagusiaren osagarria denik ere" (83. orr. eta hurreng.).

6. Arbitraje Batzorde honek lurralde desberdinei dagozkien jarduera-bolumenen ehunekoak kalkulatzeko metodo berriaren eta Ekonomi Itunarekiko duen adostasunaren inguruko iritzia emateko aukera izan du jada 2013ko apirilaren 24ko R 7/2013 ebazpenean. Ebazpen horren Zuzenbideko 6. oinarria ondoren transkribatu dugu:

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
27/2010	R10/2013	2013/06/28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Ikuskaritza eskumena

“1 ERAKUNDEAK eta Bizkaiko Foru Aldundiak lurralde desberdinei dagokienez proposatzen dituzten jarduera-bolumenen ehunekoak zehazteko metodoaren baliozkotasuna Ekonomi Itunaren arabera balioetsi behar da. Bere 14.Bi artikulua honela definitzen du jardueren bolumena:

“Eragiketa-kopurutzat honakoa joko da: subjektu pasiboak, bere jardueran egindako ondasun-emateak eta zerbitzuak direla-eta, ekitaldi batean hartzen dituen kontraprestazioen guztirako zenbatekoa, Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta baliokidetasun errekarua kenduta, halakorik badago.

Ondasun-emate eta zerbitzutzat joko dira Balio Erantsiaren gaineko Zerga araupetzen duen legerian halakotzat definituta dauden eragiketak”.

Arau honetatik ondorioztatzen da jardueren bolumena subjektu pasiboak gauzatzen dituen jardueren kontraprestazioen batuketak osatzen duela, eta ondorioz, lurralde desberdinen arteko banaketa jarduera horien kokapenak zehazten du, Ekonomi Itunaren 16. artikuluan ezarritako irizpideen arabera (artikulu horrek “eragiketak non egiten diren” arautzen du). Kontu erabakigarria, hortaz, jarduera bakoitzaren ingurua zehaztea da, hau da, jarduera unitario bat den ala jarduera bi edo gehiago diren zehaztu behar da. Lehenengo kasuan, kokapenaren irizpidea bakarra baino ez da izango, jarduerari egozten zaion kalifikazioari jarraiki; bigarren kasuan, berriz, jarduera desberdinak irizpide desberdinen arabera koka daitezke, bakoitzari dagokion kalifikazioari jarraiki. Jarduera baten ingurua edo perimetroa mugatzeko balio duen txantiloia juridikoa da nahitaez: “jarduera” bat individualizatzen duena kontratuaren edo negozio juridikoaren batasuna da, ibilgu gisa balio diona.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
27/2010	R10/2013	2013/06/28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Ikuskaritza eskumena

Bada, enpresa hornitzaileek tarifa osoko bezeroei elektrizitatea hornitzeko jarduerari irizpide hau aplikatuz ikusten da hornikuntza horrek jarduera bakarra osatzen duela, eta jardueraren kokapenaren ondorioetarako, gorputz-ondasun higigarriak entregatzea bezala kalifikatu behar da. Bada, ez da eztabaidatzen hornikuntza hori kontsumitzailearen eta konpainia hornitzailearen arteko kontratu bati jarraiki eskaintzen dela eta bere helburua bezeroari behar duenean elektrizitatea hornitzea dela. Baieztapen hori ez da gezur bihurtzen ezta bezeroak aldi batzuetan energia kontsumitzen ez badu ere, eta bezeroak, nolana ere, enpresa hornitzaileari potentzia instalatuaren arabera ordaindu behar dio; hori ikusirik ezin da ondorioztatu ordainketa horrek eta energiaren hornikuntzak kausa desberdinak dituztela, elektrizitatea hornitzeko zerbitzutik bereizirik kontraprestazioa bezala. Era berean, ez da aurreko ondorioaren kontra aipatzen Bizkaiko Foru Aldundiak eta 1 ERAKUNDEAK azaldu dutena, energia saltzeak ez duela enpresa hornitzailearentzat irabazirik edo galerarik eragiten edo ez duela balio erantsirik sortzen.

Azken argudio hori okerreko aurreiritzi batean oinarrituta dago (Aldundiak eta erakundeak aipatzen dituztenak bezala, oro har), hau da, jardueren bolumenaren kokapen-irizpideen aplikazioa enpresa hornitzaileek gauzatutako eragiketen arabera beharrezko gauzatzen dituzten jardueren arabera egin behar dela, elektrizitatearen sektorea arautzeko zehaztu diren moduari jarraiki. Bizkaiko Foru Aldundiak eta 1 ERAKUNDEAK jarduera horien arteko bereizketa azpimarratzen dute; zehazki, hornikuntza-jardueraren eta energiaren salmentaren substantibitatea azpimarratzen dute. Elektrizitatearen sektorearen antolamenduaren ikuspuntutik, jarduera desberdinak dira, eta hori bistakoa da. Ez da demostrazio luze bat behar. Ordenamendu horren funtsezko oinarrietako bat da ekoizpena, garraioa, hornikuntza eta merkaturatzea jarduera gisa

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
27/2010	R10/2013	2013/06/28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Ikuskaritza eskumena

bananduta daudela. Banaketa hori pertsonalitate juridikoaren eta jarduera bakoitza gauzatzen duten erakundeen kontrolaren gainetik nagusitzen da, baina ezin da beste plano batera eraman, jarduera desberdinen identifikazioaren arlorra, adibidez.

Bi planoak independenteak izateak (elektrizitatearen sektorearen erregulazioarena eta jarduerak gauzatzen diren tokiaren ondorioetarako identifikatzea) bigarren ekintza horren ondorioetarako hutsal bihurtzen ditu arauketa hori osatzen duten xedapenen harira zentzu batean edo bestean atera daitezkeen ondorioak. Ondorioz, ez da enpresa hornitzaileek tarifa osoko bezeroei elektrizitatea hornitzeko jardueraren batasunaren aldeko argudio adierazgarri bat ESLaren 9. artikuluan hornitzaileak honela definitzen zituela: “elektrizitatea hornitzeko funtzioa duten merkataritza sozietateak dira, baita energia kontsumo-guneetan kokatzera bideratutako hornikuntza-instalazioak eraiki, mantendu eta martxan jartzen dituztenak eta energia tarifa bati jarraiki eskuratzen duten azken kontsumitzaileei edo elektrizitatea tarifa bati jarraiki erosten duten beste hornitzaile batzuei energia saltzen dietenak ere”, eta horrela energiaren salmenta hornikuntzan barne hartzen da. Era berean, ez da pisuzko argudio bat energiaren salmenta hornikuntzatik bereizi dela uztailaren 4ko 17/2007 Legearen arau horretan (horrela aldi iragankorra burutzen da). Aldi horretako jardueren kokapenerako garrantzitsua da energiaren hornikuntza eta salmenta juridikoki enpresa hornitzaileak gauzatutako jarduera bakarra ziren ala ez argitzea.

Elektrizitatearen sektorearen arauketaren plana eta jarduerak Ekonomi Itunaren aplikazioaren ondorioetarako mugatzearen plana nahastu direlako ukatzen du Bizkaiko Foru Aldundiak jarduera desberdinak subjektu berak ala subjektu desberdinek gauzatzeak duen garrantzia. Egitate honen arauketaren arlorri dagokionez egia da ez duela inolako

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
27/2010	R10/2013	2013/06/28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Ikuskaritza eskumena

garrantzirik, baina ez da gauza bera gertatzen jarduera bat juridikoki identifikatu nahi denean: jarduera desberdinek -adibidez, hornikuntza eta salmenta- nahitaez ekarriko dituzte jarduera desberdinak subjektu desberdinek eta, ondorioz, kontratu desberdinen bitartez gauzatzen dituztenean. Aitzitik, subjektu berak gauzatzen dituztenean, jarduera bakarra den ala jarduera bat baino gehiago diren zehazteko, kontratu bakarraren bitartez edo kontratu batekin baino gehiagorekin bideratzen diren ikusi beharko da.

Enpresa hornitzailearen eta bezeroaren arteko harremanaren izaera unitarioa bat dator kontratu honi egotzi ohi zaion izaerarekin, hau da, kontratua hornidura-kontratutzat jo ohi da. Dotrina zibilistaren sektore garrantzitsuek energia (elektrizitatea, gasa) hornikuntza-sare baten bitartez hornitzeko kontratuei ezaugarri bereziak egozten dizkiete, hornitzaileak hornikuntzarekin batera zerbitzuak eskaintzen dituelako, eta horregatik, ezohiko kontratu bat da, eta hainbaten izaeran parte hartzen du: salerosketa, gauzak alokatzea, zerbitzuak alokatzea, etab. Iritzi bera islatzen da jurisprudenzian; zehazki, besteak beste, Auzitegi Gorenaren Arlo Zibileko Salaren 2006ko irailaren 27ko epaiak (4728/1999 zenbakiko errekurtsua) honakoa adierazten du:

“Jurisprudenzian behin eta berriro ikusten den bezala, hornikuntzak «salgai edo genero jakin batzuen multzoa barne hartzen du edo aldi jakin batzuetan edo geroago zehazten diren aldietan zerbitzatzea, aldeek alde zurririk ezarritako prezio batekin (1988ko uztailaren 8ko epaia, baita 2002ko otsailaren 7koa eta 2003ko apirilaren 3koa ere). Ezohiko kontratu bat izanik, 1984ko azaroaren 30eko epaitik jada, Areto honek erregimen juridiko hori «ezin dela salerosketaren erregimenarekin identifikatu uste du, harekin lotuta dagoen arren. Aldeek borondatearen autonomiaren printzipioaren gainean (Kode

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
27/2010	R10/2013	2013/06/28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Ikuskaritza eskumena

Zibilaren 1.255. artikulua) aurreikusi dutenari jarraiki arautzen da, edo bestela, salerosketaren araudiari jarraiki (Kode Zibilaren 1.445. artikulua eta hurrengoak, eta egokia bada, merkataritzakoa izanez gero, Merkataritzako Kodearen 325. artikulua eta hurrengoak), eta azkenik, betebeharren eta kontratuen arau orokorrek arautzen dute» (2002ko otsailaren 7ko epaia). Azken finean, salerosketarekiko antzekotasunak ez du esan nahi harekin identifikatzen denik, eta lehenengo kontratua erregulatzen duten arauak hornikuntzari aplika dakizkioke hori egitea ahalbidetzen duen arrazoiren bat badago bakar-bakarrik. Kontratu hau merkataritzakoa denez, Merkataritzako Kodean ezarritakoa aplikatu behar da aldeek ezarri dituzten itunek eta kontratuaren ezaugarriek ahalbidetzen badute”.

Hornikuntza-kontratua hainbat prestazio barne hartzen dituen (esate baterako, energiaren garraioa eta salmenta) ezohiko kontratu gisa kalifikatzeak kontratuaren batasunaren edo pluraltasunaren arazoa planteatzen du. Dotrina zibilista baimenduaren arabera, prestazio desberdinak batzeak helburu unitarioa izateak eta, ondorioz, batasun ekonomikoa lortu nahi izateak batasun ekonomikoa egotea dakar, eta horrela, kontratu bakarra dago. Kasu honetan, tarifa osoko bezeroei elektrizitatea hornitzeko kontratuaren batasuna defendatu du ZAEAk, energia entregatzearen harira sare elektrikoak egoteak izaera osagarria duela azpimarratuz. Bizkaiko Foru Aldundiak eta 1 ERAKUNDEAK, aldiz, izaera hori ukatzen dute, bien ustez ez delako osagarria, edo osagarria izatekotan, alderantziz izango litzatekeelako, elektrizitatearen hornikuntza izango litzatekeelako jardura nagusia.

Horren harira, 1 ERAKUNDEAK, beherago adierazi den bezala, Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiak (EEJA) BEZaren ondorioetarako jardura bakarra ala jardura bat baino gehiago dauden zehazteko

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
27/2010	R10/2013	2013/06/28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Ikuskaritza eskumena

erabiltzen dituen irizpideak aipatzen ditu. Hala eta guztiz ere, esan beharra dago irizpide horiek ez dutela babesten elektrizitatea hornitzeko eta energia saltzeko jarduera independenteak daudenik. Hain zuzen ere, EEJAK honakoa adierazten du:

”kontuan hartuz, batetik, Seigarren Zuzentarauaren 2. artikuluko 1. puntuan adierazten denaren arabera, eragiketa bakoitza normalean desberdin eta independentetzat jo behar dela, eta, bestetik, ikuspuntu ekonomikotik prestazio bakar batek osatzen duen eragiketa artifizialki xehakatu behar dela BEZaren sistemaren funtzionalitatea ez aldatzeko, garrantzitsua da eragiketa eztabaidagarriaren bereizgarriak bilatzea subjektu pasiboak kontsumitzailearentzat (batez besteko kontsumitzailea dela ulertuz) prestazio nagusi bat baino gehiago ala prestazio bakar bat gauzatzen duen zehazteko”.

(1999ko otsailaren 25eko epaia, C-349/96, *Card Protection Plan Ltd*, 29. pfoa.; 2005eko urriaren 27koan aipatua, C-41/04, *Levob Verzekeringen BV* eta *OV Bank NV*, 20. pfoa., eta 2007ko martxoaren 29koan, C-111/05, *Aktiebolaget NN*, 22. pfoa.)

1 ERAKUNDEAK defendatzen du batez besteko elektrizitate-kontsumitzaileak duen lehenengo helburua sarera konektatuta egotea dela, benetan elektrizitatea kontsumituko badu edo ez badu ere, baina hori ez dator bat esperientziarik ohikoenarekin; izan ere, esperientziak erakusten digu kontsumitzaileak nahi duena energia erabiltzea dela, nagusiki, eta horretarako, jakina, energiak eskuragarri egon behar du.

EEJAK jarduera bat edo gehiago dauden erabakitzeko formulatzen duen irizpiderik ohikoena kontratuaren batasun funtzionalarena da: prestazio

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
27/2010	R10/2013	2013/06/28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Ikuskaritza eskumena

bakarra dago “subjektu pasiboak kontsumitzailearentzat -batez besteko kontsumitzailea dela ulertuz- elementu edo ekintza bi edo gehiago gauzaten dituenetan eta horiek estu estuki lotuta daudenean, hau da, objektiboki prestazio bakar eta bereiztezin bat osatzen dutenean eta prestazioa xehakatzea artifiziala izango litzatekeenean” (2005eko urriaren 27ko epaia, 22. pfoa., eta 2007ko martxoaren 29ko epaia, 23. pfoa.). 2007ko martxoaren 29ko *Aktiebolaget NN* epaian, itsas-ohean zuntz optikoko kable bat instalatu eta entregatzean zetzan jarduera baten batasuna planteatzen zen, eta bertan, EEJAK dotrina hau azaltzen zuen (28. pfoa.): “Justizia Auzitegiaren jurisprudentzia ikusita ondorioztatzen da jarduera konplexu bakar bat dagoenean prestazio bat jarduera nagusi baten jarduera osagarritzat jo behar dela bezeroentzat berez ez bada helburu bat, zerbitzu nagusia baldintzarik onenetan gozatzeko modu bat bada”. Aipatu den kasu horretan, EEJAK ondorioztatu zuen ez zeudela bi jarduera desberdin (kablea entregatzea eta instalatzea), alegia, entrega-jarduera bakarrik zela. 2005eko urriaren 27ko *Lebov Verzekeringen* epaiaren gailan, EEJAK, aurreko dotrina aplikatuz, programa informatiko bat entregatzea eta eroslearen beharretara egokitzea jarduera bakarra zirela ulertu zuen, ekintza horietako bakoitzerako prezio desberdinak ezartzen ziren arren, eta bigarrena jarduera nagusia zela ulertu zuen, bezeroaren beharretarako erabakigarria zela, eta horren guztiaren ondorioz, jarduera bakarra zerbitzu-eskaintza gisa kalifikatu zuen.

Enpresa hornitzaileek tarifa osoko bezeroei elektrizitatea hornitzeko jarduerari EEJAren dotrina aplikatuz, badirudi argi eta garbi dagoela energia entregatzea eta hornikuntza-sarearen bidez garraiatzea xehakatzea artifiziosoa dela, eta energia entregatzea da bezeroaren ikuspuntutik jarduera nagusia. Horrenbestez, jarduera bakarra da, eta ondasun higigarrien entrega gisa kalifikatu behar da.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
27/2010	R10/2013	2013/06/28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Ikuskaritza eskumena

Lineen instalazioa hornikuntza-jardueraren osagarria dela berresten du Auzitegi Gorenaren Administrazioarekiko Auzi-errekurtsoen Salak 1 ERAKUNDEAK Valentziako Industriako eta Merkataritzako Lurralde zuzendariaren ebazpen baten kontra aurkeztu zuen kasazio-errekurtsoan 2007ko uztailaren 10ean 11568/2004 eman zuen epaiak, zehazki, erakundeari, enpresa hornitzaile gisa, hornikuntzaren kalitatea ESLaren arabera bermatzeko beharrezkoa zen elektrizitate-egitura egikaritzea agindu zion. Ondoren transkribatu ditugu Zuzenbideko Bigarren Oinarriko paragrafo erlazionatuak:

“Kasazioaren argudioa ezin da onartu, ez baita ikusten errekurtsoaren xede den epaiak idazkian aipatzen diren xedapenak urratu dituenik.

Aipatzekoa da xedapen horiek urbanizazio berrietan elektrizitate-azpiegiturak instalatzearekin lotuta daudela, eta honakoa ez da kasu hori; izan ere, espresuki onartzen da instalazioak 30 urte lehenagotik edo gehiagotik zeudela instalatuta, eta hornitzaileak ez zituela jaso gabezia teknikoen ondorioz.

(...)

Bestalde, Elektrizitatearen Sektoreko Legearen 41. artikulua enpresa hornitzaileei ‘tarifadun erabiltzaileei energia hornitzea’ inposatzen die. Betebehar honek sareak konexio-guneetaraino eramateko betebeharra barne hartzen du, baita puntu horretatik hargune elektrikoak egiaztatzea ere, 2949/82 Errege-dekretuko 2. artikuluan adierazten den bezala.

Egia da Errege-dekretu horren 23. artikulua arabera instalazio horiek enpresa elektrikoen jabetzan geratuko direla, baina horrek ez du esan

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
27/2010	R10/2013	2013/06/28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Ikuskaritza eskumena

nahi ez dituztenik instalatu behar hornikuntzen betebeharrak bete behar direnean.

Areto honek instantziako Auzitegiak eman zituen epaietan adierazi zuen gai honen inguruan duen iritzia, aipatutako Errege-dekretua eta Egiatzapen Elektrikoen eta Horniduraren Erregulartasunaren gaineko Araudia indarrean zeudenean; zehazki, erakunde hornitzaileei beren horniduraren esparruaren barruko eremuetan merkatu elektrikoaren exigentziei erantzuteko beharrezkoak ziren hedapenak gauzatzeko betebeharra ezarri zien (87. art. eta hurrengoak EEHEA). Elektrizitatearen Sektoreko Legearen ostean, Areto honek gai honen inguruan duen iritzia adierazi zuen 2002ko azaroaren 25eko epaietan; epai horietan energia elektrikoa garraiatzeko, banatzeko, merkaturatzeko, hornitzeko eta instalazioak baimentzeko jarduerak arautzen dituen abenduaren 1eko 1955/2000 Errege-dekretuaren xedapen jakin batzuen legezkotasuna aztertu zen. Ebazpen horietan atera zen ondorioaren arabera, Errege-dekretu horren 45.1. artikuluan zehaztu ziren potentzia-mugen azpitik enpresa hornitzaileek derrigorrez gauzatu behar dituzte beharrezkoak diren elektrizitate-azpiegiturak hornikuntza hori orube izaera duen hiri-lurzoruan kokatzen denean.

Betebehar horixe ezartzen da aurkaratu den ekintzan, eta errekursoaren xede den epaiak haren legezkotasuna aitortzen du...”.

Lehen aipatu diren arrazonamenduak ikusita, egokia da Bizkaiko Foru Aldundiak eta 1 ERAKUNDEAK proposatu dituzten jardueren bolumenen ehunekoak zehazteko metodoa Ekonomi Itunaren kontrakotzat jotzea, eta ondorioz, 1 ERAKUNDEAK 2001eko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergaren aitorpenean islatu zituenak aplikagarritzat jotzea”.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
27/2010	R10/2013	2013/06/28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Ikuskaritza eskumena

Aurreko arrazonamenduak osoki aplika daitezke gatazka honetan, gai berdindin bat planteatzen baita, eta ondorioz, lehenago ondorioztatu zen gauza bera errepikatzen dugu.

7. 1 ERAKUNDEAK 2007ko ekitaldiari dagokionez bere aitorpenean lurralde desberdinei egotzi zizkien eta ZAEAK onartu zituen eragiketen bolumenaren ehunekoak zehazteko, erakunde horrek elektrizitatea entregatzean Ekonomi Itunaren 28.Bat, A). 1, a) artikuluan aurreikusitako konexio-gunea aplikatu zuen, eta horren arabera, entrega gauzatzen duenak transformatutako ondasun gorpuztun higigarriak ondasun entregatuak transformatzeko azken prozesua gauzatzen den lurraldean entregatu direla ulertuko da.

Horren harira, Bizkaiko Foru Aldundiak, 2013ko otsailaren 26ko alegazio-idazkian (21. Aurrekaria) adierazten du Bizkaiko Foru Ogasunaren aktuarioak beti ulertu duela hori zela irizpide aplikagarria, azken transformazioa hornidura-gunea kokatuta dagoen tokian gauzatu zela ulertzen baitzuen (hau da, lantegian bertan, etxebizitzan, etab.). Eta horrez gain adierazten duenez, “irizpide hori historikoki onartu du ZAEAK, eta ez du zalantzan jarri”. Bestalde, idazki bereko Zuzenbideko Bederatzigarren Oinarrian, Bizkaiko Foru Aldundiak adierazten du irizpide bera aplikatu zuela ZAEAK 2001eko eta 2002ko ekitaldietako Sozietateen gaineko Zerga egiaztatu eta aztertzeke, eta ZAEAK denboran zehar historikoki sistematikoki mantendu duen irizpidea aplikatu beharko lukeela esaten du.

Jarraian, Bizkaiko Foru Aldundiak azaltzen du energiaren hornikuntzan zehar transformazio bat baino gehiago egon daitezkeela, eta horrela, lantegian, etxebizitzan edo instalazioan bertan dagoela azken transformadore elektrikoa, hain zuzen ere energia kontsumitzaileek behar duten tentsiora transformatzen duena. Foru Aldundiaren iritzian, “ZAEA modu kontraesankorrean azaldu da Arbitraje Batzordearen aurrean aurkeztu diren espedienteetan: batzuetan

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
27/2010	R10/2013	2013/06/28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Ikuskaritza eskumena

adierazten du transformazioa dagoela baina ez dela lantegian, etxebizitzan edo instalazioan bertan egiten den azkeneko transformazioa (2009ko BEZa); beste batzuetan, berriz, zergapekoak mantendu duen irizpidea onartzen du (2001eko eta 2002ko ekitaldiak); eta gatazka honetan berriro aldatu du bere iritzia, ondasun higigarri transformatu gabeak entregatzean datzala ezarriz”.

Bizkaiko Foru Aldundiaren iritzian, elektrizitateari aplikatzen zaion konexio-puntua Ekonomi Itunak transformazioaren xede diren ondasunak entregatzeko ezartzen duena da, “eta ondorioz, derrigorrez ondorioztatu behar da elektrizitatea entregatzen den leku bakoitzean gauzatzen dela azkeneko transformazio-prozesua, hau da, lehenago adierazi den bezala, lantegian, etxebizitzan edo instalazioan bertan, hantxe baitako azkeneko transformadore elektrikoa”.

ZAEAk, bestalde, 2012ko abenduaren 19ko alegazioen idazkian, 5. idatz-zatian, honakoa defendatzen du: “tarifa osoko bezeroei elektrizitatea hornitzea ondasun higigarriak entregatzeko eragiketa bakarra da, eta Ekonomi Itunaren 16. A. 1. artikuluan ezarritako irizpideei jarraiki kokatuko da”. Eta ondoren, aipatutako idatz-zatia transkribatzen du, baina a) letra ez du aipatzen, ondasun transformatuak transformazioa gauzatzen duenak entregatzearen inguruko arau berezia jaso duena, hain zuzen, eta horregatik ondoriozta daiteke ZAEAk ez duela aplikagarritzat jotzen. Kontzertu Ekonomikoaren artikulua aplikagarria kasu honetan 28.a artikulua da, ez 16.a artikulua, baina bi xedapenak berdindirak dira. Hau da, ZAEaren arabera, elektrizitatea entregatzeko jarduerari aplikatzen zaion konexio-gunea garraiatzen diren ondasun higigarriak entregatzen diren gunea da.

ZAEaren iritzian, transkribatutako xedapena behar bezala interpretatzeko “kontuan hartu behar da Ekonomi Itunak jatorriko BEZ eredu bat ezartzen duela eta ondorioz jarduerak balio erantsia eragiten den tokian zergapetzen direla”.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
27/2010	R10/2013	2013/06/28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Ikuskaritza eskumena

Jarraian, ZAEAk Auzitegi Gorenak 2011ko apirilaren 13ko epaian ezarri zuen irizpidea aipatzen du, 540/2009 errekurtsioan emandakoa. Epai horren arabera, ondasun higigarriak entregatu diren tokizat jotzen da (entrega egin baino lehen garraiatzen badira nahiz ez badira garraiatzen) balio erantsia eragiteko baliabide material eta giza baliabide nahikoa dituen lekua.

ZAEAk adierazten duenez, Bizkaiko Foru Aldundia aurreko irizpidean oinarritu da Nafarroako Foru Erkidegoarekiko Hitzarmen Ekonomikoaren Arbitraje Batzordeak gasa entregatzen den kasu baterako eman duen ebazpen bat Auzitegi Gorenaren aurrean aurkaratzeko, kasu honetan defendatzen duenaren kontra.

Bere pedimentuan, ZAEAk, Arbitraje Batzordeari gatazka hau bere alde ebazteko eskatzeaz gain, honakoa adierazteko eskatzen dio: “elektrizitatea tarifa osoko bezeroei hornitzea ondasun higigarriak entregatzeko eragiketa bakarra dela eta haren konexio-puntua jarduera ekonomikoa gauzatu den tokia zein den kontuan hartuz zehaztu behar dela [sic] toki hori baliabide materialen eta giza baliabideen antolamendua duen tokia dela eta gero zergapetzen den balio erantsia eragiten den lekua dela ulertuz”.

Aurreko eskaerak prozedura honetan Ekonomi Itunaren xedapen bat modu abstraktuan interpretatzearen inguruko beste auzi bat sartzen du. Hasteko, ZAEAk ez du azaltzen zertan oinarritzen den garraiatzen diren ondasun higigarrien entregaren konexio orokorreko gunea aplikatzeko, transformatzen diren ondasunen arau berezia (lehenago onartu zuena) aplikatu beharrean. Eta jarraitzeko, ez du adierazten konexio-gune berri horren aplikazioak zer ondorio izango lituzkeen hemen gatazkaren xede den ikuskapen-eskumenaren harira, eta gatazka honetan ez da ikuspuntu horretatik eztabaidatu ere.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
27/2010	R10/2013	2013/06/28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Ikuskaritza eskumena

12/2010 espedientearen harira emandako 2013ko urtarrilaren 25eko R 1/2013 ebazpenean adierazi dugun bezala, "Arbitraje Batzordearen Eginkizunen gaineko arauak ikusita ondorioztatzen da Batzordearen eginkizunetako bat ez dela Ekonomi Itunaren interpretazioarekin lotutako gai abstraktuak eta gatazka zehatzekin loturarik ez dutenak ebaztea. Bada, Ekonomi Itunaren 66. artikuluan ikusten da 'gatazkak ebazteari' edo 'gatazkak ezagutzeari' buruz hitz egiten dela, eta oro har, 'eskumen-gatazkari' egiten dio erreferentzia. Ondorio berera iristen da Hitzarmen Ekonomikoaren Arbitraje Batzordearen Araudiko (HEABA) 3. artikuluan eta 10. artikulutik 12.era adierazitakoa ikusita (guztiak dira eskumen-gatazkei buruzkoak). Kasu hau HEABAren 13. artikuluan jaso da, gatazka planteatzeko baldintza gisa inhibizio-errekerimendu bat egitea exijitzen duenean".

Ondorioz, ez da egokia Arbitraje Batzordeak gai honen inguruko irizpena ematea.

8. Bizkaiko Foru Aldundiak A01-LLZZZZ ikuskapen-aktan aplikatu duen eragiketa-bolumenaren ehunekoak kalkulatzeko metodoa baztertzeak 1 ERAKUNDEAK 2007ko ekitaldian BEZaren urteroko laburpenean aitortu dituen ehunekoen baliozkotasuna onartzea esan nahi du. Ehuneko hauek ikusita, aipatutako ekitaldi horretan lurralde erkidean gauzatu diren eragiketen bolumena eragiketa-kopuru osoaren ehuneko 75era iristen den ala ez zehazteko erabakigarria da Nafarroako Foru Erkidegoa ondorio hauetarako lurralde horren parte dela ulertzen den ala ez.

Honen harira, ZAEAk Auzitegi Gorenak 2009ko maiatzaren 26an eman zuen epaiari egiten dio erreferentzia, administrazioarekiko 365/2008 auzi-errekurtsoan emandakoari, alegia. Errekurtsoa Nafarroako Foru Erkidegoak jarri zuen, Hitzarmen Ekonomikoaren Arbitraje Batzordearen 16/2007 eta 17/2007 ebazpenen kontra (biak dira 2008ko apirilaren 4koak), eta gatazka horretan

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
27/2010	R10/2013	2013/06/28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Ikuskaritza eskumena

parte hartu zuen, berak eskatuta, 3 ERAKUNDEAK. Ebazpen horiek ezarri zuten “Estatuaren eta Nafarroako Foru Erkidegoaren arteko Hitzarmen Ekonomikoaren 18.2 artikularen arabera ‘erregimen komuneko lurralde’ kontzeptua Nafarroako Foru Erkidegoa ez den espainiar lurralde guztiak osatzen duela ulertu behar dela”.

Epai horrek ez du errekurtsoa onartzen, Zuzenbideko Hirugarren Oinarrian nagusiki jasotako arrazonamenduei jarraiki. Oinarri hori ondoren transkribatutakoa da:

“Gure interpretazioaren xedea Estatuaren eta Nafarroako Foru Erkidegoaren artean Hitzarmen Ekonomikoan aipatzen den «erregimen komuneko lurraldea» esamoldearen irismena da, 25/03 Legearen uztailaren 15eko bertsioari dagokionez.

Azpiparratu behar den lehenengo oharra da Hitzarmen horretan bi lurralde-administrazioak esku hartzen dutela. Batetik, Nafarroako Foru Erkidegoak (bere lurraldea ondorio hauetarako xeheki zedarrituta dago), eta bestetik, Estatuaren Administrazioak (honen lurraldea ere xeheki zedarrituta dago, hau da, espainiar lurraldeko gainerako eremu osoa da, Nafarroako Foru Erkidegoa ez dena).

Hau guztia ikusirik ateratzen den bigarren ondorioa da guztiz ezinezkoa dela esku hartzen duten administrazioei dagozkienak ez diren hirugarren lurralde bat aintzat hartzea, bestela Hitzarmenean ez jasotzeak Hitzarmenaren balioaren gaineko zalantza handiak piztuko lirakeelako, eta hori, argi dago, ez du auzilarietako batek ere nahi.

Hirugarren oharra da ez duela inolako garrantzirik aipatutako Estatu Administrazioaren «erregimen komuneko lurraldea» osatzen duen

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
27/2010	R10/2013	2013/06/28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Ikuskaritza eskumena

lurraldearen dibertsitateak, garrantzitsuena eta erabakigarriena Hitzarmenean Estatuaren Administrazioko lurraldea osatzen duela baita. Horrexegatik, 2 ERAKUNDEAREN ordezkariak Espainiako Konstituzioan, Autonomia-estatutuetan eta Lege Bereziatan «erregimen komuneko lurraldea» eta «lurralde forala» bereizten direla ziurtatzeko egin duten ahalegin azpimarragarria hutsala da. Interpretazio hori zuzena bada ere, gatazka honetan garrantzitsuena, erabakigarriena, ez da «espainiar araugintzan erregimen komuneko lurraldea»ren kontzeptua nola ikusten den, Estatuaren eta Nafarroaren arteko Hitzarmen Bereziaren Legean kontzeptu hori nola ulertzen den baizik, hau da, Nafarroa ez den espainiar lurralde osoa dela.

Gauzak ezin dira beste modu batean ulertu aipatzen den beste lurralde-administrazio hori aintzat hartu gabe, eta esan dugun bezala, horretarako, aztertzen ari den sistema osoa birplanteatu beharko litzateke”.

ZAEAREN ustez, “argi dago ebazpen hori lurralde erkidearen kontzeptuak Euskal Autonomia Erkidegoaren Ekonomi Itunaren ondorioetarako duen esanahiari aplikatu dakiokeela”.

Bizkaiko Foru Aldundiak ez dio gai honi erreferentzia egiten gatazka hau planteatzeko aurkeztu duen idazkian. 2013ko otsailaren 26ko alegazioen idazkian, 2001eko eta 2002ko ekitaldien inguruko gatazkan Arbitraje Batzorde honen aurrean aurkeztutakoak jaso ditu. Bertan, Auzitegi Gorenaren 2009ko maiatzaren 26ko epaia ezin dela kasu honetan aplikatu defendatzen du, konexio-puntuen interpretazioa 8/2008 gatazkan jaso da. Bestalde, 1 ERAKUNDEAK azpimarratzen du antolamendu juridikoaren interpretazio sistematikoa eginez (Ekonomi Itunaren kasuan ere bai) Nafarroako Foru Erkidegoaren lurraldea “ezin dela lurralde erkidetzat jo inolako ondoriotarako, bere foru-erregimenaren menpe baitago”.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
27/2010	R10/2013	2013/06/28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Ikuskaritza eskumena

13/2010 gatazkarekin metatutako 8/2008 gatazkaren harira 2013ko apirilaren 24an xedatutako R 7/2013 ebazpenean, honakoa adierazi genuen: "Auzitegi Gorenak 2009ko maiatzaren 26ko epaian islatu duen dotrina argi eta garbi dago eta kasu honetan aplika daiteke, hemen zalantzan jartzen den gaia bat baitator epai horretan ebatzi denarekin. Ondorioz, Arbitraje Batzordeak nahitaez ebatzi behar du Ekonomi Itunaren 14.Bat eta 19.Bat artikuluetan aipatzen diren eragiketen bolumenaren ehunekoak kalkulatzeari dagokionez Nafarroako lurraldea lurralde erkidearen parte dela". Gatazka honetan aurreko ebazpena berretsi besterik ezin dugu egin.

Atera den ondorio hori ikusirik ondorioztatzen da BEZaren ondorioetarako 2007ko ekitaldian lurralde erkideko eragiketen bolumena eragiketara guztien ehuneko 75ekoa baino gehiagokoa izan zela.

Horren arabera, Arbitraje Batzordeak

ERABAKI DU

1 ERAKUNDEA sozietatearen (IFZ: (LETRA)ZZZZZZZZ) ikuskapena egiteko eskumena, 2008ko ekitaldiko Balio Erantsiaren gaineko Zergari dagokionez, Estatuko Administrazioari dagokiola.